

Ez yai errez, Santu aundi onein Maria'gazko garapen-
eustea.
Eleizeak be, kanta-kantari, au diñotsa: «Oi, zu neskatzen
ren! Eba'k zoritzarrez kendu euskuna, zuk sabel igailz biurtzen
gu, kaskarrok, izarrez-gain igon gaitzen, zeru-atsak daukenu
edegia».

O gloriosa Virginum...
Quod Heva tristis abstulit,
Tu reddis almo germine:
Intrent ut astra flebiles,
Caeli recludis cardines.

Aita Jakaba, K. O.



Jakingarriak - Laterri Batuak

Laterri Batu edo Estados Unidos'ko ta euren menpean dagoen
Alaska ta Hawaii ugarteetan diran kistarrak —Aita Santuaren menpe-
koak— 30.425.015 dira. Lengo urtetik orain arte 1.017.495 ugartu dira.
Chicago'ko Arzobispaduan 1.779.324 kistar orokor yatzuz; Boston
engoan 1.406.136; New York'engoan 1.319.156; Filadelfia'koan, 1.193.000
ta Newark'ekoan 1.094.364.

Gotzaiñak iñoz baño geiago daukiez: 193. 4 Kardenal, 26 Arzobis-
bispo, 163 Obispo. 45.222 mezadun dira, 16.836 pralle ta enparau-
abadeak. Pralleen artean 7.823 anai dira ta 158.946 mezadun ezizkariak
eta oneitatik 118.000 irakasten dabizenak.

15.032 parroki euren jaupariagaz dagoz, 770 jaupari barik eta
bein edo bein mezaduna ikusten dabenak. Onei gañeratu 7.302 eta
zatxu, 4.722 mixio ta 725 geltoki edo estaziño.

Kistar oneik 71 seminario eutzin bear dabez, 368 pralleki eta
240 ikastetxe, 1.577 parroki-eskolak, 850 bakar-ikastetxe ta 9.029 pa-
rroki-ikastol umetxuentzat.

Abade ikastetxeeetan 15.434 abadegei dabiz. Prallekiak 17.281
dira. Kistar ikastoletan 3.515.661 gazte ta ume dabiz.


762 gaxoetxe guztientzakoak, 119.027 ogeoz. 119 gaxoetxe be-
lantzakoak, 2.002 gaxoz.
1952'm. 117.803 kistartu ziren.
663 kistarreko abade bat dago. 3.500 lagunek abade bat.

SHEEN GOTZANA

Estados Unidos'etan Obispo dozu Sheen jauna. El Paso deritxan
uriko baserrian jaioa. Beronen gurasoak solo-lanetan ekiten eutsen.
Washington'en ikasteak egin eta maxumalea lortu eban. Erronagaratu
ta emen be beste maxutza bat eskuratu eban.

Astero, martitzen illuntzeko sortziretan radioz edo telebiziñoz
itz egiten dau. Gaian baten kistarra pozik bizi bear daua, Javanaren
menpean bizi ta bere gurariz biotza indartu ta jazokun guztiak erag-
penez eta postasunez artu ta eron bear dirala irakasten dau. Itxunak
egiten dautsez kistarrak eta kistar orokor ez diranak, eta argi ta garbi
erantzuten dautse.

Bere kistar-ekialdien bidez ainbat jakitun eta bide-onerat-
dauz. Orain Erroma'n Laterri Batuetako Ordezkarri dagoan Clari-
Boothe luce emakume argia ta Louis Budenz idazlari bikaina
Ekin dagiola Obispo argi anek arimen onerako.



EGI BIRIBILLAK

Adarra joten etorri jatzunari zeuk jota, «or dago» irabaztea.
On antza daroan gaiztoa, ardi-narruz dabillan otsoa.

Zarrai urteak igonago, burue urdiñago, pausue laburrago ta lepoa
makurrago.

Biotz zintzoaren kurutzeak, zeruan sartzeko; gaiztoaren nekeak
gero be gaiztokirako.

Zurtzat doazan emakume asko, gizaki zoroen antzeko.